PAUL URKIJO

ZINE ZUZENDARIA

“Liburuak laguntzen du filma hobeto ulertzen edota bertako sekretu txikiak deskubritzen”

220 bat orritan, ‘Irati’ filmaren atzean dagoen lan artistikoa bildu du Paul Urkijo zine zuzendariak. Material grafikoari berak idatzitako testu azalpenak gehituta borobildu du lana

IZARO MENDIETA

IRATI filmaren artea du izena Paul Urkijo zine zuzendariak argitara eman duen liburuak. Hain zuzen, 220 bat orrialde dituen lana da, Urkijok zuzendutako *Irati* filma oinarri duena. Bertan jaso ditu, marrazki, irudi digital eta sormenezko arloari eta bisualari lotutako bestelako osagarriak. Horiekin batera ageri dira, bestalde, berak idatzitako hamaika azalpen testu, euskaraz zein gazteleraz. Ez ditu berak idatzi, ostera, hitzaurrea eta hitzatzea; asko miresten duen Alex De la Iglesia arduratu baita lehenaz, eta *El ciclo de Irati*-ren sortzailea den Luis Landa ilustratzailea, berriz, bigarrenaz. Pelikulan erreferentzia egiten dioten euskara ere jaso dute lanean, Gorka Lazkanoren azalpenen bidez.

‘Irati’ filmaren ostean, horri lotutako liburua kaleratu duzu. Zer jasotzen du lanak?

Berez, liburua filmak dauzkan sekretu ugariren gida bat da. Izan ere, filmek atzean lan pila bat izaten dute, ikusten ez dena; esaterako, egon daiteke bi segundo irauten duen plano bat, baina horren atzean lan izugarria dago: sormenezkoa, diseinuari dagokiona, efektu bereziena... Hala, lan horri guztiari duintasuna emateko eta jendearekin partekatzeko, polita iruditzen zitzaigun liburu bat ateratzea. Horrez gain, fantasiazko generoaren barruan, filmen diseinu lan handia duten liburu asko dago, eta horiek erostearen zalea naiz, adibidez, Eraztunen Jauna-rena, edota Gillermo del Tororenak. Beraz, beti eduki dut ilusio hori, nire filmen arte liburuak ateratzearena, hain justu. Azken finean, ekoizpen bidaia guztian bildu dudan material grafiko dena sartu dut liburuan, azalpen batzuekin.

Eta ataletan banatu duzu lana.

Hasieran, esaterako, nire sarrera bat dago, non azaltzen dudan nondik datorren filma egitearen grina, txikitatik daukadan euskal mitologiarekiko interesa, nire txikitako ilustrazioak... Gero, sartzen naiz pixka bat filmaren artisautzan; hitzaren zentzurik onenean. Egin nitzakeen filmaren lengoaia zinematografikoaren hausnarketa asko, edota zuzendaritza eta gidoigintzari buruzkoak, baina hori alde batera utzita, bakarrik zentratu naiz sormenezko arloan eta bisualean, eta nik hori artisautzatzat dut. Hala, hor hasten gara, batetik, filmaren hasieran agertzen diren labar margo horiekin - euskal mitologiaren genesia erabatean azaltzen dutenak-; gero, azaltzen dugu nola sortu genuen Orreagako bataila; badago beste atal bat non ikusten dugun filmaren lokalizazioetan egin genituen arte eta dekoratu guztiak. Bestalde, liburuaren erditik aurrera bildu ditugu filmean agertzen diren euskal mitologiako pertsonaiak nola gauzatu genituen azaltzen duten argibideak: hau da, nola sortu genituen, nola diseinatu eta gauzatu ziren... eta liburuaren amaieran badago beste atal bat zeinetan hitz egiten dugun filmaren afixari eta logoari buruz.

> **Saiatu gara liburuan filmaren argazki eta irudi batzuk tamaina handian jartzen, orrialde guztia betez, beste modu batez ere gozatzeko”**

Pelikulan erabili zenuten euskararen estrategia ere alpatu duzue liburuan, horrek eman baitzuen zeresana.

Jende askok galdetzen dit filmeko euskararengatik, eta nola Euskal Herrian denok garen filologo, eta guztiok dakigun pila bat euskarari buruz, bada, azaldu dugu nola doitasun handiarekin egin genuen, kontrastatu genuen filologo ospetsu askorekin, eta saiatu ginen dauden aztarnak keinu moduan euskara horretan txertatzen; izan ere, batetik, bada film fantastikoa, beraz, hor lizentzia guztiak izan ditzakegu, baina, bestetik, badauka bere parte historikoa ere. Uste dut, batetik, polita dela soinu zahar horiek entzutea, baina, bestetik, uste dut filmari sinesgarritasuna ere ematen diotela, kutsu estetikoa, legendazkoa. Beraz, liburuan aurkituko du irakurleak dena azalpen guztiekin, eta horrela jendeak ez dit galdetuko [barrez dio].

Liburuak erakusten duen alderdi grafikoa, beharrezko baino, osagarritzat har daiteke, akaso?

Hor dago kontua, interesa duenak bertan aurki ditzake xehetasun guztiak, eta interesik ez duenak ez du liburua ikusiko. Hala ere, uste dut nik neuk liburua bokazio didaktiko handiarekin egin dudala; alegia, jendeak ikus eta ezagutu dezan filmak nola egiten diren, edo filmak egin nahi dituenak aukera eduki dezan zerbait ikasteko. Nik, esaterako, beti ikasi dut making ofetatik eta horrelako liburuetatik, eta nik ere horren parte izan nahi dut; izan ere, oso interesgarria iruditzen zait interesatzen zaionarentzat. Halaber, baliagarria da pelikula bigarrenez ikuskatzeko eta bertan dauden elementu ugari horiek bigarren aldian aurkitu eta ulertzeko.

Zer du liburuak filmak ez duena? Eta alderantziz?

Bi gauza oso ezberdin dira; gauza bat da filma, eta liburua da filmaren luzapen txiki-txiki bat. Liburua da paralelo txiki bat, lagundu ahal duena filma hobeto ulertzen, edo bertan dauden sekretu txikiak deskubritzen. Liburuak ez dizu istorioa kontatzen, azalpen gida bat da; filma, ordea, narrazio bat da, zeinak murgiltzen zaituen mundu fantastiko-historiko batean.

Zer gomendatzen duzu, lehenengo filma ikustea ala liburua irakurtzea?

Nik ordena argi daukat: lehenengo, filma ikusi. Egia da jada ezin daitekeela zineman ikusi, baina aukera dago, esaterako, Primeran edo Amazon Prime plataformetan ikusteko, eta DVD eta Blu-Ray formatuetan ere badago; gainera, aparteko materiala ere badute azken bi horiek, pixka bat liburuaren espiritu berarekin, kutsu dibulgatzaile horrekin. Behin pelikula ikusita, liburua irakurriko nuke, eta gero, berriz filma ikusiko nuke; hartara, gauza berri asko ikusiko dituzte.

Eta horren ostean, berriz ere liburua, agian? Ze, liburu hori ez da behin begiratzeko, ikusten duzun aldiro gauza ezberdinak aurki ditzakezu.

Liburuak ere badauka erritmoaren kontua. Filma erritmo markatu bat daukan fikzioa da, ikusten dituzun irudiak iraupen bat daukate; egia da gelditu egin dezakezula pelikula, baina liburuko irudiei begira gera zaitezke nahi duzun denboraz, eta ikus ditzakezu nahi bestetan. Hala, saiatu gara liburuan filmaren argazki eta irudi batzuk tamaina handian jartzen, orrialde guztia betez, beste modu batez ere gozatzeko.

Zinema zuzendaria ez ezik, marrazkilaria ere bazara zu. Lagungarria izan da hori lana gauzatzeko?

Bai, noski. Azkenean, pelikularetzat egiten dudan material hori guztia -arte kontzeptuala, storyboard-ak, etabar- erakutsi egin nahi ditut, eta hori ere izan da liburua kaleratzeko arrazoietako bat; baina, horregaz gain, filmak egiteko, normalean zuzendariok denbora luzez egoten gara lanean, film bakoitzarentzat, gutxienez, hiru urtez, eta tarte horretan, lan grafiko handia egiten dugu, ekoizleei erakusteko edo finantziazioa bilatzeko dosier ugari egiten dugu... Hori horrela, maketazioa eta diseinu grafikoa ere ikasten dituzu. Azken finean, ikasi behar izan ditudan bizipen nagusi horiek lagundu didate liburua egiten.

Lan mardula dago filmaren atzean, baina ikusentzulea kontziente da behar horretaz?

Uste dut normalean ez dela kontziente, baina, uste dut beharrezkoa ere ez dela; filmak, azkenean, bakarrik defendatu behar dira eta gozatu behar dituzu direnarekin, esperientzia birtuala balira bezala. Horren atzean zer dagoen pentsatzen hasten bazara, istorioak ez du funtzionatzen, atera egiten du ikus-entzulea, eta egin behar duena da barrura sartu, konektatu istorioarekin. Bestalde, badago jendea zeinak interesa duen zinemaren



Paul Urkijo zine zuzendariak Irati filmaren artea liburua plazaratu du. ELKAR

Liburua filmak dauzkan sekretu ugariren gida bat da. Izan ere, filmek atzean lan pila bat izaten dute, ikusten ez dena"

Jendeak zoriondu egin nau, eta eskertu dute materiala jendearekin partekatzea. Pieza polita eta interesgarria dela esan didate askok"

atzean zer dagoen ezagutzeko, eta horrekin asko gozatzen du baina nik uste dut ez dela beharrezkoa. Hala ere, egia da azken urteetan, digitalizazioaren edota pirateriaren ondorioz-edo, filmen balioa, edo esperientzia zinematografikoa, jaitsi egin dela; alegia, jendeak nahiago du kubata bat zortzi euro ordaindu, zinemara zortzi euroren truke joan baino, azken aukera hori garesti iruditzen zaiolako. Zinemak ematen dizuna da beste herrialde batera bidaiatzea, beste bizitza batean sartzea... Eta nik uste dut horren atzean dagoen lanari gero eta balio gutxiago ematen zaiola.

Irakurlearen feedbacka jaso duzu?
Egia esan, jendeak zoriondu egin nau, eta eskertu egin du material hori jendearekin partekatu izana. Oso pieza polita eta interesgarria dela esan didate askok eta askok.

Pelikularekin, bestalde, nolako iritziak jaso dituzue?
Oso harrera ona izan du, jende askok eskertu dit pelikula egin izana, esanez, Euskal Herriak horrelako zerbait behar zuela aspaldi. Gainera, genero hau ikusten ez duten pertsona askok esan didate asko gustatu izan zaiela, nahiz eta normalean, fantasiazko pelikulak ikusi ez.

'Irati'-rekin egin ostean, beste lanen batekin ere gauza bera egiteko asmorik al duzu? 'Errementari'-rekin, agian?
Beno, denborarekin gustatuko litzaidake egitea, bai. *Errementari* lanaren material asko daukat, eta, beharbada, luzera, jarriko nintzateke, gustuko baitut horrelako materiala ateratzea.

Eta orainera etorrita, zertan dabil egun Paul Urkijo?
Urtarrilean film berria grabatzen hasiko gara, *Gaua* deritzona. Kasu honetan, ildo beretik jarraituko dut: XVIII. mendean gertatzen den istorio bat da, Euskal mitologiako beldurrezko istorio bat, zeinak gaueko partearekin lotura izango duen.